

“BERBALAGUN”
Helduen euskalduntze-alfabetatzea
suspertu eta euskararen erabilera
bultzatzeko egitasmoa - 2013



AURKIBIDEA:

1.- SARRERA

2.- HELBURUAK

3.- OINARRI NAGUSIAK:

3.1.- EKINTZA NAGUSIAK ETA AZPIEKINTZAK

3.2.- KRONOGRAMA

3.3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

3.4.- ORGANIGRAMA

4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

5.- AURREKONTUA

ERANSKINAK:

I. Eranskina: 2004ko hitzarmena (urtero luzatu eta egokitzen dena)

II. Eranskina: 2012ko AEK-ren txostena



1.-SARRERA

2004an abian jarri zenetik mantendu egin den egitasmoa dugu eta iraun dezan ahaleginean gabilta. Aurreko urteetan izandako balantze positiboa eta emaitza ezin hobeak azpimarratzekoak izanik, 2013an, egin beharreko egokipenak bitarteko, “Berbalagun” hobetzeko osagarriak gauzatuko ditugu kanpainan.

2.- HELBURUAK

“BERBALAGUN” proiektu honekin lortu gura diren helburuak:

- Euskaltegietako mundua bistaratzea eta nabarmentzea.
- Euskara ikasleen motibazioa lantzea.
- Euskara ikasleengan suspertzea.
- Euskara ikasleen integrazioa bultzatzea.
- Euskara gaitasuna hobetzea.
- Euskaldunak erdaldunen integrazio prozesuan inplikatzeko.
- Gernika-Lumoko berbakera ezagutzera ematea.

Eta hori guztia, EBPNren bi Helburu Estrategikorekin lotuta dugu, 2013ko Kudeaketa Planean honakoa aintzat hartuz:

Helburua estrategikoa: ondorengoetaratzea.

Esparrua eta helburua:

2. Euskalduntzea-Prestakuntza

2.1. Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean.

Neurria

2.1.4. IKASTARO BEREZIAK ANTOLATU ETA EUSKARRIAK ESKAINI

Ekintza:

2.1.4.1. "Mintzalagun" proiektua jorratzeko taldeak sortu herrian (atzerritarrak eta adin guztietako euskaldun zaharrak eta berriak aintzat hartuta). Formula berriak aztertu: bazkari-laguna, kirol-laguna... [Mintzalagun, Berbalagun, Mintzakide egitasmoak eta gisakoak]



Azpiekintzak:

- Berbalagun proiektua Gernika-Lumon, mintzapraktirako aukerak eskaini eta euskararen erabilera kalean indartzekoa.
- Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea
- Atalase-maila (5. eta 6. mailak) gaindituta daukatenentzako eskaintza egokitua
- Udaleko aisialdi-ekintzak modu koordinatuan garatu
- Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatu
- Tailer-ikastaroak euskaraz antolatu
- Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatu (hitzaldiak)

3- OINARRI NAGUSIAK

Zutabea dugu Gernika-Lumoko Udala eta Gernikako AEKren artean 2004an sinaturiko hitzarmena (I. eranskina), urtero luzatu izan dena, egin beharreko egokipenak bitarteko. Arestian esan bezala, helduen EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA suspertu (ondorengoteratzeko helburu estrategikoa) eta euskararen erabilera areagotzea du helburu nagusizat.

3.1.- EKINTZA NAGUSIAK ETA AZPIEKINTZAK

- **Eginbehar nagusiak.**- Aurreko urteetan finkatutako hobekuntzei eutsi behar zaie 2013an, egitasmoa gauzatu ahal izateko lanen sistematizazioa lortze aldera:
 - Talde eragilearen koordinazio-bileren aldikotasuna bermatu.
 - Kanpainan partaide diren mintzakideentzat zein hauen lagun hurkoentzat hileko programazio berezia eratu.
 - Kanpainarako mintzakideak erakartzearen, zabalkundea urtero egiteko sistema zehaztu.



- Hileko Berbalagun-eko programazioaren berri emateko komunikazio-plantxoa eratu.

- **Dinamizaziorako ekintzak:**

- Mintzalagun taldeak eratu (euskaldun zahar bat eta beste lau berbalagun trebagai; guztira 15 bat talde).
- Tailerrak antolatu (berbalagunkideek lehentasuna izan arren, zabalik daude tailerrok edonorentzat).
- Irteerak antolatu (hilean pare bat irteera, ekologia, historia, ohitura edo abarrak lantzekoak).
- “Ezetz jakin” lehiaketa antolatu. Hogei bat galderen erantzunak asmatzen dituztenen artean zozketa egiten da eta saridun bat aukeratzen da hilero. Saria udalerriko jatetxe, denda edo erakunderen batek doan emandakoa da. Lehiaketa honetan batz besteko partaideen kopurua 80 batekoa izaten da.

- **Azpiekintza bereziak:**

- 2007an Berbalagun egitasmoarekin lotu zen ikastolen jaialdietarako (Ibilaldia, Kilometroak, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez, Herri Urrats) joateko bidaien antolakuntza, guztira 5 jaialdi. Udalak berak zuzenean antolatuko ditu.
- 2013ko Mintzaeguna: irteera berezia, Euskal Herriko “berbalagun” taldeen biltzeko jaialdira.
- 2013an Gernika-Lumoko II. Mihiluze txapelketa antolatu, 2011ko arrakasta oinarri.

3.2.- KRONOGRAMA

Ikusi II. Eranskinean koordinatzaileak mintza taldeen eraketari buruz eta egitasmoaren dinamizazioaz egindako 2012ko txostena.

Jarduerak	Urt	Ots.	Martx	Apir.	Maia.	Ekain.	Uztail.	Abuz.	Irail	Urria	Aza	Abend
Ekintzak planifikatzea												
Boluntarioak biltzea												
Mintzasaioak antolatu												
2013ko zabalkundea												
Eskolaratzea bideratzea												
Hitzaldiak												
Irteerak												
Jaialdi bereziak												
II. Mihiluze txap. antolatu eta burutu												
Jatorduetako taldeak												
Mintzataldeen saioak eta tailerrak antolatu												
Talde eragilea (batz.)												
Datu baseak osatzea												
“Ezetx jakin” lehiaketa												

3.3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua, egitasmoa diruz eta azpiegituraz hornitzeko.
- Gernikako AEK (egitasmoaren koordinazioa).
- Euskaltegiak (AEK euskaltegia eta AITA VILLASANTE Udal Euskaltegia): datu baseak sortu zabalkunderako eta eskolaratzea bideratu.
- Busturialdean Euskaraz Bizi: egitasmoaren zabalkundea egin eta partaideak eta bolondresak bilatu.
- Euskara Batzordea (egitasmoaren bultzatzailea eta babeslea).
- Udaleko Hezkuntza Saila (ikastoletako jaialdi berezietarako bidaia antolatzea).


Baliabideak:

- Diruzkoak eta azpiegiturarakoak Udaleko Euskara Zerbitzuak jarriko ditu, 2013ko Kudeaketa Plana garatzeko aurreikusitako partidetatik eta azpiegitura aldetik Udalarenak erabiliz (Kultur Etxeko gelak,).
- Giza baliabideak:
 - Euskara Teknikaria I (Euskara Zerbitzua)
 - AEK-ko teknikaria
 - Mintzasaioetarako bolondresak (15/20).
 - Euskaltegietako zuzendariak (Taldea Eragilean partaide).



3.4.- ORGANIGRAMA

Egitasmoaren funtzionamendurako eta jarraipenerako eratutako egitura hau da:



4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK:

Xede taldea:

Jarraian azaltzen den koadroaren arabera, egitasmo hau doakien unibertsoa “(*)” ikurraz azpimarratutakoen batura litzateke, 3.836 biztanle 2001eko erroldaren datuen arabera; 2006ko erroldaren datu bilketa ez zen horren zehatza izan, baina ondorioztatzen duguna da erdaldungoa murriztuz doala eta sasi-euskaldun eta euskaldun berrien kopuruak egiten duela gorantz. Euskaldun osoena mantendu egiten da (euskaldun zaharrak+euskaldun berriak).

	1991 urtea		2001 urtea		2006 urtea	
	KOP	%	KOP	%	KOP	%
Euskaldun zaharrak	8720	56,63	8180	56,33	10.552	67,87
Jatorrizko elebidunak (*)	793	5,15	743	5,11		
Euskaldun berriak (*)	692	4,49	1173	8,08		
Partzialki euskaldun berriak (*)	1297	8,42	1458	10,04	2.779	17,87
Partzialki erdaldunduak (*)	625	4,06	462	3,18		
Guztiz erdaldunduak	227	1,47	159	1,09	2.216	14,25
Erdaldun zaharrak	3043	19,76	2344	16,14		
	15397	100	14519	100	15.547	100

Dena dela, guk, zabalkunde orokorra egiteaz gain, eraginkortasuna aitzakia eta xede taldea zehazte aldera, hurrengo hauek izango ditugu kontuan zabalkunde berezia eta pertsonala egiteko:

- Euskara ikasten edo lantzen ari direnak (400 bat)
- Euskalegietako ikasle ohiak (700 bat)

Adierazleak:

- Zehaztutako xede taldetik partaide izango direnen kopurua.
- Euskararen erabilerari buruzko neurketak (Soziolinguistika Klusterra).



5.- AURREKONTUA

Egitasmoaren dinamizazioa –teknikaria-, bulego gastuak. (AEK, hitzarmena)	14.000
Dinamizazioa: antolaketa, tailerrak, irteerak,..	3.500
Euskara jaialdietarako (Ikastolak eta eskola publikoa) bidaiak antolatzeke eta Korrikaren inguruko partaidetza sustatzea	2.500
Gastuak guztira	20.000

Gernika-Lumon, 2013ko urtarrilean

Esperanza Uriarte Erdaide
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizkuntza Normalizaziorako Tek.



1. ERANSKINA

**“AEK EUSKARAZ KOOP. ELKARTEA”
ETA GERNIKA-LUMOKO UDALAREN
ARTEKO HITZARMENA,
“BERBALAGUNA” EGITASMOA 2004
URTEAN GARATZEKO**

Gernika-Lumoko Udaletxean, bi mila eta lauko apirilaren-(e)an eta Udal Idazkaria naizen Imanol Bilbao Eizagirre Jaunaren aurrean.

BILDUTA

Batetik, Mertxe Mujika Balanzategi Andrea, adinekoa eta NAN zbk. 78.864.768, AEK Euskaraz Koop. Elkartearen izenean arituz (IFK: F-95222816).

Bestetik, MIGUEL ANGEL ARANAZ IBARRA Jauna, adinekoa, Gernika-Lumoko Udaleko udal-batzarburua, 7/1985 Legearen 21.1.B) artikulua ezarritakoaren arabera udalaren izenean jarduten duelarik.

ADIERAZTEN DUTE

I

Gernika-Lumoko Udalak, Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa 2003ko apirilaren 30ean onartu zuen, 2003ko Kudekaeta Planarekin batera, eta horren bitartez hiru helburu estrategiko landuko dira:

- 1. Helburu estrategikoa: euskara ondorengoetaratzea.
- 2. Helburu estrategikoa: euskararen erabilpena.
- 3. Helburu estrategikoa: euskara elikatzea.

II

Plan Estrategiko hori eratzerakoan, faseetako bat Euskara Batzordekideen ekarpenak jasotzea izan zen. Gernikako AEK Euskaraz Koop. Elkartek (aurrerantzean “Gernikako AEK Elkarte”) berea aurkeztu zuen, “Berbabarri” deitura zuena eta gerora “Beralagun” izena hartu duena. Egitasmoaren aurreproiektua tajutzeari ekin dio Gernikako AEK Elkartek 2003ko azken bi hilabeteetan, Euskara Arlotik emandako dirulaguntza bitarteko.



III

Aipatu aurreproiektuan¹ zehatz-mehatz adierazten da hauxe: “Gernika-Lumon euskararen normalizazio ahaleaginean lehentasuna euskararen erabilerak baldin badauka ere, ezin dugu inolaz ere ahaztu helduen EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA eta berau suspertzeko asmoarekin idatzita dago proiektu hau. “

IV

Arestikoak kontuan hartuta, Gernikako AEK Elkarteak eta Gernika-Lumoko Udalak bat egiten dute helburuetan, “Bernalaguna” egitasmoaren bitartez 1. Helburu estrategikoa landu eta 2. eta 3. Helburu estrategikoetarako ekintzak garatzeko aukera izanik.

V

Beraz, Gernika-Lumoko Udalak eta Gernikako AEK Elkarteak, elkarlanerako honako HITZARMENA sinatzen dute. Horretarako, finkatu egiten dituzte hurrengo

KLAUSULAK

Lehen.- Gernikako AEK Elkarteak konpromisoa hartu du “Bernalaguna” aurreproiektua gauzatzeko eman behar diren pausuak burutzeko. Horien artean, hurrengoak dira azpimarratzekoak:

1.- Teknikari lanak betetzeko persona bat liberatuko du 20 ordu astean, hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

2.- Teknikari horrek hurrengo funtzioak beteko ditu nagusiki:

- Aurreproiektuan aintzat hartu den Talde Eragilearen dinamizazioa.
- Talde Eragilea eta Euskara Batzordearen arteko zubi lanak betetzea.

¹ Eranskina: “Bernalaguna” egitasmoa

- Talde Eragilearen ebatziak gauza daitezen gestioak burutu, azpiegitura beharko den kasuetan Udaleko Euskara Zerbitzuarekin elkarlanean arituz.

Bigarrena.- Gernikako AEK Elkartek, lehenengo klausularen arabera burutuko dituen lan guztiekiko txosten bat aurkeztuko dio Gernika-Lumoko Udalari hiru hilabeterik behin, aldeztu aurretik txosten horren berri Euskara Batzordeari emanda, berau izango baita proiektuaren jarraipena eta zaintzaren ardura izango duena.

Hirugarrena.- Gernika-Lumoko Udalak, “Berbalagun” proiektuarekiko hurrengo konpromisoak hartu ditu:

1.- Talde Eragilean parte hartzea, Euskara Zerbitzuko Teknikari bat horretarako izendatuz.

2.- Proiektua gauzatzeko beharko liratekeen azpiegitura eta gainerako baliabideak eskaintzea.

3.- 2004ko aurrekontuan 25.576 euro burutzea egitasmo honetarako, hurrengo era honetara banatuta:

A).- Gernikako AEK Elkarteari ematekoa, 11.579 euro (teknikariaren ordainsaria 9.679 € eta bestelako gastuetarako 1.900 € –ordenagailua, telefonoa, posta gastuak, gutun azalak,...-).

B).- Talde Eragilearen ardurapean, Gernika-Lumoko Udaleko aurrekontutik kudeatuko diren partidak:

- Sentsibilizazio kanpainarako 3.000 € -karteleria, diptikoa, hedabideak-.
- Ikastaroetarako 3.000€ (irakasleak, materiala).
- Euskarazko kultur ekintzak..... 8.000,00 €

Laugarrena.- Gernikako AEK Elkarteari eman beharreko dirulaguntza, hurrengo ere honetara ordainduko da:



- Dirulaguntza orokorraren %50a, 5.789,5 euro, hitzarmena sinatzen den unean.
- 2004ko irailean gainerako %50a, beste 5.789,50 euro.

Bosgarrena.- Elkarlanerako Hitzarmen hau sinatu eta indarrean izango da urte beteko epean eta, behin epe hori igaro ezkeror, sinatzaile biek adostuko dute akordioa luzatu ala egoera berriari egokitu beharra.

Eta adostasunaren seinale, honako agiria sinatu dute ekitaldiko partaide guztiek, idazburuan aipatutako leku eta datan.

ALKATEA,

GERNIKAKO AEK,

Miguel Angel Aranaz Ibarra

Mertxe Mujika Balanzategi

EUSKARA
ARLOKO ZINEGOTZIA

IDAZKARIA,

Imanol Zubizarreta Iza

Jon Goikoetxea Etxebarria



2. eranskina

BERBALAGUN MEMORIA 2011-2012



1.- Sarrera

BERBALAGUN martxan jarri genuenean helburu nagusia herrian euskararen erabilera indartzea eta euskaldunon sarea zabaltzea eta trinkotzea izan zen, baita euskara ikasten zebiltzanei bidea erraztea eta herrian bertan bidelagunak jartzea eta euskal komunitatean parte hartzeko aukera ematea ere, eta gaur egun ere horixe berori du xedea. Talde guztietan harrera ezin hobea izan du eta du gure proiektu honek, kontuan hartzen gaituzte eta euren inguruko bidea erraz zabaltzen digute, elkarri laguntzeko aparteko sarea sortu dugu gure artean.

2004ko maiatzean martxan jarri genuenetik hainbat pausu eman ditugu eta makina bat, irteera, ikastaro, hitzaldi, afari, bazkari, erromeri, Mintza Egun, txapelketa, lehiaketa antolatu dugu. Eta zenbat albiste, kartel eta komunikabideetako orri eta telebista saio bete ditugu? Eta zenbat sari banatu ditugu? Makinatxo bat izan dira.

2011-2012 ikasturtean, datuak dantzan ibili dira 85 lagunetik 77ra, batzuetan gora beste batzuetan behera, 13 taldetan banatuta. Bost lagun izan ditugu taldeetan sartu ezinik, ordutegi egokirik ezin izan diegulako aurkitu. Jendeak ikasturte osoan eman dezake izena, ez dago izena emateko epe mugarik, esate baterako, talde bitan ekainean hasi dira lagun bi. Foruko barnetegiko ikasle batzuk ere ondo aprobatxatu dute aukera, batez ere, iluntzeko talde baten ondo moldatu dira eta hemen egon diren denboran (hila bat, bi, hiru, ...) talde horretan aritu izan dira. Beste urte batzuetan moduan, albo herrietakoek ere, berton daudelako lanean, ikasten edo Gernikarako joera dutelako geuregana jotzen dute, esatebaterako izan ditugu Elantxobekoak, Arteagakoak, Forukoak, Muxikakoak, Errigoitikoak, Ajangizekoak, Ibarrangelukoak, Kortezubikoak, Zornotzakoa,... eta, jakina, guk denak esku zabalik hartzen ditugu.

Hainbat lagun ditugu gauza puntualetan baino parte hartzen ez dutenak, ikastaroetan, mendi irteeretan, Mintza Egunetan eta horrelakoetarako deitzeko esaten dutenak, asteroko konpromisoa nahi ez dutenak.

BERBALAGUNen laguntzaile aritzearren unibertsitaterako kredituak lor daitezkeen arren, azkeneko urte bietan ez dugu horren eskaririk izan, beharbada parte hartzen dutenen adinak ere zerikusia izango du horretan, edo beste edonon ere erraz lor daitezkeelako, aisialdi ikastaroetan, dantza ikastaroetan, kirola eginez, ...



2. Funtzionamendua

Berbalagun egitasmoa koordinatzeko:

- . Jarraipen Batzordea (ikasturtean bi-hiru alditan elkartu). Lehiaketa dela-eta hilero.
- . Taldeak (galdetegi bidez, taldeko koordinatzaileen bidez, eskutitzen bidez, telefonoz, blogaren bidez, ...)
- . Praktika egitasmoak (koordinatzaileekin e-mailez, telefonoz, ...)

Jarraipen Batzordea

Osaketa:

Aita Villasante Udal Euskaltegia
AEK

Busturialdean Euskeraz Bizi taldea
Udaleko Euskara saila

Mintza-taldeak

Talde bakoitzak bere funtzionamendua du, autonomia osoa du. Talde guztietan, gutxienez, euskaldun oso bat egon da eta horiek izan dira dinamizatzailea eta berbataldearen arteko lotura. Koordinazioa hainbat modutara lortu dugu, batzuetan telefonoz, beste batzuetan noten bidez, e-mailez, taldeetara joanda, ...

Praktika egitasmoak

Euskal Herriko beste mintzapraktika proiektuekin (mintzapraktika, mintzakide, berbalagun,...) harremanean izan gara, batez ere, e-mailez, telefonoz, foroetan, Mintza Egunean, ...

3.- Parte hartzaileak

	goizez	eguerdian	bazkal ostean	arratsal	iluntzean	gauaz
astelehenak	12				6	
astearteak				8	8	
asteazkenak		7	3		5(15ero)	
ostegunak	6					
ostiralak	6					4
larunbatak	4					



13 taldetan banatuta, hainbat lekutan eta talde bakoitza bere ordutegian elkartzen izan da, Faisanen, Bakederren, Auzokoan, Gernika jatetxean, Bengoetxe jatetxean, Bidaguren gozotegian, Aterpen, Zuhaizpen, Arranon, kultur etxearen aurrean, kultur etxean, ...

4.- Ekintza osagarriak

Aurrikusi genituen denak egin ez baditugu ere, hainbat antolatu ditugu ikasturte honetan:

1.- “Ezetz Jakin” lehiaketa hilero kaleratu dugu, guztira 7 izan dira ikasturte honetan atera ditugunak, apirilean ez genuen atera Aste Santua tartean zegoelako eta 489 inguru izan dira jaso ditugun erantzunak. Sariak 1000 Kolorauk, Julen jatetxeak, Lezama jatetxeak, Gernika jatetxeak, Boliña Barria jatetxeak, Zallo Barri jatetxeak eta Alboka jatetxeak eman dituzte.

Irabazleak: Amaia Etxebarriazarraga Arteagakoa, Sorkunde Ugalde Barrutialdeko irakaslea, Gorka Etxebarria Segundo Olaeta Musika Eskolako irakaslea, Victor Delgado Kanpantxukoa, Jon Mikel Goikoetxea gernikarra, Alfredo Irazeburu Burlatakoa eta Foruko barnetegiko ikaslea, eta Joseba Arrien gernikarra.

2.- Mendi irteerak.- Ikasturte honetan **8 irteera antolatu ditugu**, abenduan ez genuen egun egokirik eduki horretarako eta ez genuen egin. Oso arrakastatsuak izan dira, 15-16kmkoak, urrian 66 lagunekoa, azaroan 83koa, urtarrilean 43koa, otsailean 44koa, martxoan 68koa, apirilean 86koa, maiatzetan 40 lagunekoa eta ekainekoan 64 lagunekoa.

Apirileko irteera Gernikako Bonbaketaren 75. urteurrena ospatzeko 37-12 Bonbaketako Komizioarekin batera antolatu genuen, geu arduratu ginen banatu beharreko triptikoez, bisita gidatuaz, ... Iratxe Uriguen izan genuen gidari.

Geure irteerak hileko hirugarren edo laugarren larunbatetan izaten dira eta taldetxoak antolatuta dugu, ibilbideak prestatzeko “Txiki” Elgezabal dugu, triptikoa, normalean, Iratxe Uriguenek prestatzen digu, argazkilariak ere bat baino gehiago izaten ditugu, hamaiketakoak egiteko “txokoak” ere edonon ditugu (Lumon, Ariatzan, Fruizen, Gernikan, ...) Irteeretan talde burua eta taldearen azkenak zaintzeko ere ekipotxoak dugu Orkon, Torre, Albarito, Andriu, ...

Jendeak gustuko du egiten dugun planteamendua, irtetzeko ordu egokia, km kopurua, itzulera ordua, giroa eta irteera bakoitzean banatzen diren azalpenak, triptikoak, ibilaldi osteko tertuliak, poteoak, ... **ARDO DASTAKETA ere (Ramon Bilbaoren ardoak).**



3.- Hamaika orduko irakurraldia.- Abenduaren batean, Euskararen Eguna zela eta “irakurketa kolektiboa” antolatu genuen kultur etxearen aurrean. Bernardo Atxagaren Zazpi Etxe Frantzian liburua irakurri genuen goizeko 9:00etan hasi eta iluntzeko 20:00etara arte. Irrintziek eman zioten hasiera ekitaldiari eta amaiera txalapartak eta irrintziek. 300 lagun inguru izan ziren egun osoan parte hartzen, eskola-ikastoletakoak, institutuetaakoak, udaleko langileak, talde kulturaletakoak, euskaltegiak, EPAkoak, komunikabideetakoak, ... Jarraipena beharko du, ezta?

4.- “Krisialdia” hitzaldia.- Abenduaren 22an, EKAI Center elkartekoak eta MAIER enpresako Julen Madariaga izan genituen kultur etxean hitzaldia egiten. Opor bezpera zela eta, jende gehiegi ez ginen batu, baina egon ginenok egoeraren azterketa zehatza eskualde mailan egin beharko litzatekeela garbi ikusi genuen eta ahalegin horrek jarraipena beharko lukeela ere agertu genuen.

5.- Ardo dastaketa.- Abenduan, San Juan Ibarako garagardotegian Ana Larrañaga enologoak benetako ikastaroa eman zigun. Ardoek nola lortzen duten jatorri deitura, nolako kopa erabili behar den, zein prezioetako ardoak erosi behar ditugun, publizitateari ez diogula horrenbeste begiratu behar, ... Mihiaren zein partetan nabaritzen dugun zapore gozoa, gazia, garratza edo mikatza ere azaldu zigun.

10 lagunentzat programatuta zegoen ikastaroa eta kopuru hori bete genuen. Hurrengo baten ere horrelako bat egiteko geratu ginen.

6.- Euskal dantzak, ikastaroa.- Aurtongoa, bosgarren urtea izan da. Asteartero urtarriletik Aste Santura arte, 12 astetan Zirats eta Leirerekin hainbat dantza ikasteko aukera izan da. **26 lagun** izan dira ikastaroan. Dendetakoek ere parte hartu ahal izateko 20:15etatik 21:15etara egon da antolatuta.

7.- Euskal erromeria.- Maiatzaren 8an, Pasealekuan, astegun buruzuria izan arren, Segundo Olaeta Musika Eskolako laguntzaz **50 lagun** inguru dantzan aritu ginen, hainbat lagun aurrean. Jendeak badu dantzarako gogo, aukera baino ez du behar.

8.- “Katu jendea” liburuaren irakurketa.- Maiatzaren 10ean, Eider Rodriguezek “Katu jendea” liburuaren gaineko azalpenak eman zizkigun Elai Alai aretoan batu ginen **30 lagunoi**. Idazlea otsailaren amaieran etorriko zelakoan urtarrilean eta otsailean irakurtzeko proposatutako liburua izan zen, baina luzatu egin zen epea eta jendea hotzitu egin zen, galdu egin zuen interesa.

Hurrengorako ondo lotu beharko ditugu epeak edo idazle ospetsu-ospetsua, edo ezagunagoa ekarri beharko dugu.

9.- Buah Txabal! antzezlan.- Maiatzaren 12an Elai Alai aretoan antzezlan hau eskaini genuen Kultur Etxeak, Gazte Informazio Bulegoak eta BERBALAGUNEK, sarrera dohainik izan zen. Unai Iturriagak Arrasate Euskaldun



Dezagunekoentzat egindako gidoia. Gazteen euskararen arreta jartzeko egindako obra. Dohainik izan arren ez genuen ikusle larregi izan.

10.- Hitzaldia, “Irrintziak eta Zantzoak”.- Otsailaren 9an, kultur etxean eman zigun Amai Garciak honen inguruan batu duen informazio guztia. Azken urteetan ikastaro moduan antolatu duguna moldatu eta hitzaldi eran eskaini zigun, teoria eta praktika batera. Hainbat lagun batu ginen, 30 inguru, eta balorazioa egiteko pasatu genuen fitxari esker gure irrintzi talderako “*kaptazio berriak*” egin ditugu.

Oizmendi telebistak grabatu eta zabaldu zuen. Hori dela eta Amaiak hainbat eskaintza izan ditu beste herri batzuetan ere emateko (Ibarrangelun, Algortan, Nabarnizen, ...)

11.- Haratuste Domekan irrintziak kultur etxeko balkoitik.- Azken urteetan bezala, jaietako egitarauan gure saiotoxa izan genuen. Marro jantzita, hamaiketakoaren truke gure ezarriak urrutu genituen.

12.- “Gernika Sutan” herri antzerkia.- Iaz bezala, guk Berbalagun talde moduan parte hartu genuen gure irrintziak eta txalapartarekin. Kultur etxearen ondoko balkoi bietan, talde bitan banatuta eta hainbat entsaio egin ondoren gure marka jarri genion herri antzerkiari.

13.- Mintza Eguna Santurtzin.- Ekainaren 2an ospatu genuen, egun handi hori, Euskal Herri osoan elkartu ginen Berbalagunkideok. Beste urte batzuetan autobusa antolatu badugu ere, oraingoan Santurtzi hurbil dagoenez Gernikatik joan ginen 28 lagunak trenetaz eta metroz hurbildu ginen Santurtziraino. Egun polita pasatu genuen jan edanean eta dantzan.

14.- Arraina eta ardoaren ibilbidearen zati bat eta ostean Ramon Bilbao ardoak.- Urtero azken irteeraren ondoren egiten dugun moduan, ekainaren 30ean mendi irteeraren ostean “Betikoak” txokoan Ramon Bilbao ardoa, Mar de Frades Alvariñoa, Cruz de Alba, Miranda de Dueroko ardoen dastaketa, ... Igor Basterretxeari esker.

15.- Santa Luziako jaietan “Irrintzi poteoa eta lehiaketa”.- Santa Luziako jai batzordeak proposatuta aurton lehenengoz irrintzi lehiaketa antolatuko da abuztuaren 10ean, geuk antolatu genuen dena. Lau nagusik eta ume bik hartu zuten parte. Irabazlea: Luchy Uribe. Polito irten zen.

EGIN GABE UTZI DITUGUNAK:

II. Mihiluze txapelketa

Josten

Arropa birziklatu eta erabili

Olerki emanaldia



Larrua nola landu, ikastaroa
Ezkontzetarako poltsak nola egin
Lanen erakusketa
Diaporama ikasturteko argazki, kartel, panfleto, ...
Egindako diptiko guztien bilduma

Arrazoi ezberdinak tarteko, goiko hauek egin gabe utzi ditugu.

5.- Publizitatea eta informazioa.-

Bloga (<http://gernikaberba.blogspot.com>)

2011-2012 ikasturtean hainbat sarrera egin ditugu, 2011n, urritik abendura, 27 eta 2012an, urtarriletik ekainera, 50 sarrera eginda ditugu. Bertan feedbacka badaukagu, batzuek behintzat hainbat iruzkin egiten dituzte eta. Flickr-ren ere geure hainbat argazki sartu ditugu. Gernika-Lumo lau haizetara zabalduta daukagu.

Horiez gain, beste mintzapraktika egitasmoen bilguneak diren www.praktikatu.blogspot.com eta www.mintzapraktika.org orrialdeetan gure berriak ere etengabe agertu eta agertzen dira.

Publizitate kanpaina

Bandoa atarietan urrian

Prentsan eta aldizkarietan izandako agerpenak:

HITZAn etengabe agertu da gure informazioa, Oimendi telebista eta irratian eta Hamaika telebistan ere, Aldaban, BGBIZ aldizkarian hilero, Deian eta CORREOn ere.

Kartelak

Herriko hormak ondo jantzi ditugu karteekin, makinatxo bat kartel atera dugu-eta.

